

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure xede-publikoa zein izango den jakitea garrantzitsua ikusten dugu. Gure kasuan, xede-publikoa helduak hurrekin denbora pasatzea gustatzen zaien edo igaro nahi duten familiak dira. Hauek, ezaugarri konkretu batzuk izango dituzte, batik bat, 0-6 urte bitarteko haurrak dituzten familiak izatea, jarduera desberdinak prestutasunez egitea gustuko duten familiak, beste familia batzuekin harremana izan nahi duten familiak, beraien seme-alabekin zein familiako kideekin denbora pasatu nahi duten familiak, ingurua errespetatzea garrantzitsua uste duten familiak (ekintza guztietan material birziklatuak erabiltzen ahaleginduko garelako)...

Bestalde, alde geografikoari dagokionez, gure zerbitzua Durangon jartzea erabaki dugu. Durango, Bizkaiko hego-ekialdeko udalerrri bat da, Durangaldea eskualdekoa. 10,79 km² ditu, eta 2021. urtean 29.972 biztanle zituen non %30a 0-15 urte bitarteko haurrak ziren eta uste dugu datu hauek onuragarriak direla guretzako. Haur kopuru nahiko handia baitago. Halaber, Durangaldeko herrialdeetan euskara maila altua da eta euskara bultzatzeko nahia ere, guk faktore horri garrantzia handia ematen diogu. Gure zerbitzuak euskaraz izango baitira euskara bueltatzeko nahiarekin. Hortaz, euskararen erabilgarritasuna pisuzko arrazoa izan da zerbitzua kokatzeko momentuan.

Azkenik, alde sozioekonomikoari dagokionez, gizarte maila ertainekoei zuzenduta dagoela esan dezakegu. Prezio aldetik ahalik eta merkeen jartzen ahalegindu gara pertsona kopuru handiagoari heltzeko nahiarekin. Bestalde, laguntzak eskaintzea ere erabaki dugu, prezioa gehiago jaizteko, adibidez, Durangoko udaletxean erroldatuta egonez gero edo familia ugariko txartela izanez gero, %5 eko beherapena izango dute, bi baldintzak betetzerakoan, guztira %10eko beherapena egingo zaie.